



IKUSI NAHI EZ DUTEN BEGIAK



Save the Children

EUSKADIRI BURUZKO ERANSKINA

Ume baten kontrako sexu-abusu kasu batean izan
daitezkeen hutsegiteak

- Eta hau konpontzen hain erraza bada, zergatik ez da egiten?
- Umeek ez dutelako bozkatzen, besterik gabe.

Haurtzaroan espezializatutako auzitegiko psikologoa

Haurtzaro Politikak eta Sentsibilizazioa:
Ana Sastre

Ikerketaren koordinatzailea:
Liliana Marcos

Ikerketa taldea:
Eva Silván
Jose Ignacio Alonso

Argazkiak:
Alba Lajarín

Marrazkiak prestatutak:
Javier Torres
Servei d'Infància i Família del
Institut Mallorquí d'Afers Socials

Ilustrazioa:
Germán Gullón (VALBHY)

Arte eta disenua:
Alienor de Sas
Óscar Naranjo

Save the Children España



Gure esker on eta besarkada beroenak helarazi nahi dizkiegu ikerketa honen barruan egindako elkarrizketetan beren denbora eta jakinduria eskaini dizkiguten aditu eta profesional guztiei. Bereziki, ama horiei, duten indarragatik eta elkarrekin isuri ditugun malkoengatik.

Haurrak indarkeriatik babesteko lanean, batzuetan kosta
ahala kosta bada ere, buru-belarri aritzen diren langile pu-
bliko guztiei eskainia.





SARRERA

Estatuko –Euskadi barne– bost pertsonatik batek sexu-indarkeria motaren bat pairatu du haurtzaroan, horrela frogatzen dute egindako hainbat azterketak, hurrek jasandako sexu-abusuen aurkako Europako Kontseiluaren 2010eko kanpainan jasotako datuek barne. Orain arte eginiko makroinkesta bakarraren arabera, Estatuko biztanleen % 18,9k abusuak pairatu dituzte (gizonen %15,3k eta emakumeen % 22,5ek)³. Estatistika eztaba daezin hori ikusita, izaten diren galderak ez dira «Nola gerta liteke? Zerk huts egin du?», baizik eta «Zuzena al da zifra hori? Ez al da esajeratu samarra?». Abusatzaile batzuek ikastetxe edo kirol-zentroetan urte luzez inolako arazorik gabe jarduteko aukera izatearen azken arrazoia, izan ere, inork ere ez duela gertatzen ari dena sinetsi nahi da, besterik ez.

Euskadin, egin berri duten txosten batek nabarmentzen du hurrek jasandako sexu-abusuen % 2 baino ez direla denbora errealean ezagutzen, hau da, abusuak gertatzen ari diren unean. Horrek gerora ondorio nabarmenak eragiten ditu abusuok pairatzen dituzten haurrengan⁴.

Dokumentu honek, Ikusi nahi ez duten begiak txostenaren eranskina denak, haurren aurkako sexu-abusuen arazoa jorratzen du Euskadin, egindako galdera horiek erantzuten saiatuz. Horretarako, sexu-abusuak zer diren (eta, ondorioz, zer ez) azaltzeaz gain, administrazio publikoak emandako erantzunean zertan huts egin den ere aztertzen da. Gainera, ondorio modura, umeen eskubideak babesteko eta betearazteko hainbat gomendio ere ematen ditu.

Save the Children gobernuz kanpoko erakundearen iritziz, arlo honetako proposamen guztiek, baita Euskadin haurren aurkako sexu-abusuak desagerrarazteko ezarritako beste edozein neurrik ere, ikuspegi globalarekin heldu behar diote haurren aurkako indarkeriari, bai gizartetik bai administrazio publikoetatik ere. Eta ikuspegi horrek politika publiko autonomiko integralak hartu behar ditu barne, haurren aurkako indarkeria desagerrarazteko etorkizuneko Estatuko lege organikoarekin bat betiere. Era horretan, haurrak babesturik eta indarkeriatik aske biziko diren gizarte baterantz aurrerapausoak eman ahal izango ditugu.

3 López, F.: Los abusos sexuales de menores. Lo que recuerdan los adultos, Gizarte Gaietako Ministerioa, Madril, 1994.

4 Eraikiz Kolektiboa: Abusos Sexuales en la Infancia, 2016

LABURPEN EXEKUTIBOA

ZER DIRA UME ETA NERABEEN AURKAKO SEXU ABUSUAK?

Botere abusua

“Maitasun
difuntzionaleko”
harreman biziak

Pixkanaka hasten
dira...

Sentimenduen, ahultasunen
edo beharrianen
manipulazioa.

Abusatzaileek nagusiki haur ahulenak dituzte jomuga:

1


Pasiboak maitasun falta
dutenak, beren buruan
konfiantza txikia dutenak,
manipulatzen erraztenak.

2

Heldu babeslerik gabeko
familia disfuntzionaletan bizi
direnak.

3

Adimen-desgaitasuna
dutenak.



Biztanleen %10 eta %20 inguruk jasan dituzte sexu-abusuak haurtzaroan



MUTILAK

Mutilek 11 edo 12 urte dituztenean jaso ohi dituzte abusuak, eta autoritatea duen ezagun bat izaten da erasotzailea



NESKAK

Neskek, berriz, 7 eta 9 urte artean dituztenean pairatzen dituzte sexu-abusuak, eta familia-ingurukoa izaten da erasotzailea

ZER EZ DIRA SEXU-ABUSUAK?

Mito faltsuak

Sexu-abusuak ez dira ohikoak, oso gutxitan gertatzen dira.

Errealitatea

1

Blitzanleen % 10 eta % 20 inguruk jasan dituzte sexu-abusuak haurtzaroan.

2

Erasotzaileak burutik jota daude, munstro hutsak dira.

Ez dago sexu abusatzailearen profil psikologiko jakinik. Lehen begiratuan inork ez luke esango abusatzaileak munstroak direnik edo buruko gaixotasunen bat dutenik.

3

Gure inguruko haurren bati gertatuz gero, ohartuko ginen.

Sexu-abusuak ez dira inola ere antzematen edo adierazten errazak: sekretua da askotan abusatutak eta abusatzaileak elkartzen dituen itsasgarri ahaltua.

4

Ondorioak oso larriak dira ia beti eta ume guztiek berdin erantzuten dute.

Hainbat faktoreren araberakoa izango da **ondorioen larritasuna** (maiztasuna, ahaidetasun-maila, intentsitatea, eta abar).

Mito faltsuak

Errealitatea

Behe-mailako gizarte-klaseetan bakarrik.



exu-abusuak familia mota guztietan gertatzen dira.

Erasotzaileak ezezagunak dira.



Hamar kasutik seitan, haurrak abusotzailea ezagutzen du neurri batean edo bestean.

Neska edo mutil baten aurkako sexu-abusua dagoenean sarketa edo larritzat hartutako bestelako sexu-praktikak daude.



Adingabeen aurkako sexu-abusuak pixkanaka eta progresiboki garatzen dira. Hasieran ukituak eta masturbazioak izaten dira, eta zenbait kasutan baino ez du biktimak sarketarik pairatuko (baginako koitoa % 4,9k eta uzukikoa % 2,7k).

SINTOMA ETA ONDORIOAK

ONDORIO EMOZIONALAK

Antsietatea

Beldur orokorra

Etsaitasuna eta agresibitatea

Errua (erruduntasuna) eta lotsa

Trauma-osteko
trastornoa

Autoestimazio baxua,
estigmatizatuta sentitu

Depresioa

Mesfidantza

Norberaren gorputza
errefusatzea



ONDORIO SEXUALAK

Sexualitateaz dituzten ezaupideak goiztiarrak dira edo beraien adinarako desegokiak

Jokabide exhibizionistak edo promiskuitatea

Sexuari buruz jakin-nahi gehiegizkoa

Sexu-identitate arazoak

Masturbazio konpultsiboa

ONDORIO SOZIALAK

Atzeratazun soziala

Gaitasun sozialen gabezia

Portaera antisozialak

HAUR BATEN AURKAKO SEXU-ABUSU KASUREN BAT DAGOENEAN IZAN DAITEZKEEN AKATSEN SEKUENTZIA-KATEA

1

Umeak sexu-abusua pairatzen du.

- Ikastetxeetan ez dago sexu-hezkuntzarik.
- Gurasoek ez dute sexu-abusuei buruzko prestakuntzarik, ezta gurasotasun positiboko trebetasunik ere.



2

Sexu-abusua denboran luzatzen da.

- Hezitzaileak eta gurasoak ez dira abusua ikusteko gai.
- Irakasle batzuek, jabetu arren, ez dakite zuzen jokatzeko modua zein den.



Bost autonomia-erkidegok baino ez dute doako zerbitzu unibertsalik.



Umeek 4 urtez batabestekoa pairatzen dute abusua.

4

Umearen eskubideak eta babesa ez daude bermatuta

- Haien nortasuna eta kasuaren xehetasunak hedabideetan agertzen dira.
- Epaiketa aldi batez artxibatuta geratzen da eta erasotzailearekin harreman jarraitua izan dezake.
- Ez hark ez familiak ez dute tratamendu psikologikorik jasotzen.
- Internet ez da segurua.

3

Abusua salatu gabe geratzen da, eta, abusatzailea, berriz, aske eta zigorrik gabe.

- Ikastetxe eta erakundeek arazoa ezkutatzen dute.

Umeak gertatutakoa kontatzen duenak.

3

Biktimarentzat mingarria den prozesu judizial luzea hasten da (ikus gehiago hurrengo orrian)

- Umeek abusatzailearen aurrean deklaratzeko dute.
- Lege-prozesuek hiru urte irauten dituzte batez beste.
- Profesionalak ez daude gaituta horrelako kasuei heltzeko.

Lege-sisteman sartzen diren kasuen % 70 inguru ez dira ahozko epaiketara iristen.

PROZESU JUDIZIAL

Gertatzen dena



Haurrek, behin gertatutakoa salatu ondoren, 4 aldiz azaltzen dituzte abusuak batez beste.

1

Adingabeari deklarazioa hartzea eta haren sinesgarritasuna baloratzea.

Goi-mailako kualifikazioa duten langileek, ahalik eta lasterren, egin behar dute; metodologia estandarizatu erabili behar dute, eta saihestu adingabeak gertatu zaiona hamaika aldiz adierazi behar izatea.



Mundu perfektuan

Aztertutako epaien % 13,8 tan baino ez zuten froga alde aurretik eratu.



2

Epailearen aurreko deklarazio grabatua, ahalik eta lasterren, alde aurretik eratutako froga gisa.



Umea berriz ere biktima bihurtzea eta, denboraren joanagatik, haren lekukotza kutsatzea saihesteko, kasu guztietan egin behar da, abusuak gertatu eta ahalik eta lasterren egin ere.

Lege-prozesua hasten denetik amaitzen den arte hiru urte igarotzen dira batez beste.

Kasuen % 38tan aringarri gisa erabiltzen da kasua «bidegabe atzeratu» izana, hau da, auzitegiak berak aitortzen du saihestu ahal ziren atzerapenak izan direla eta akusatuari zigorra txikiagotzen dio bidegabe itxaroteagatik.



Kasuen % 86tan adingabeak epaiketa plenarioan eman du lekukotza.



3

Epaiketa atsegina.

4

Prozesua azkar samar amaitzea.

Umeari lege-sisteman zuzenbidez dagokion moduan entzun ahal izan dakion, espazio seguru eta atsegin bat erabili behar da, baita neskaren edo mutilaren garapen kognitiboaren eta behar espezifikoaren araberako metodo egokiak ere.



Lege-prozesua ez da denboran luzatzen, abusuak pairatu dituenak bere onera etortzeko duen eskubidea ahalbidetuta.

IRTENBIDE NAGUSIAK

Sexu -eta afektibitate- hezkuntza adin goiztiarretik: Abusuak pairatzeko aukera erdira ere murrizten dela egiaztatu da, umeek jasotako prestakuntzan oinarritutako sexu-abusuak prebenitzeko programak hedatuta dituzten herrialdeetan. Programa arrakastatsuak jarduera puntualetara mugatzen ez direnak dira; horrelakoak curriculum akademikoetan sartzen dira, eta denbora zein adinaren arabera ego-kitutako material estandarrak eskaintzen zaizkie. Prestakuntza duten langileek ematen dituzte, orobat. Prestakuntza arautuan sexu- eta afektibitate-hezkuntza gazte-gaztetatik txertatzeak, abusuak murrizteaz gain, errespetua oinarri duten harremanak izateko prestatuago dauden nerabeak izatea ere ekarriko du.

Gurasotasun positiboa: Umeen aurkako abusuak egiten dituzten pertsonak lehenago hurbiltzen dira adingabe pasiboagoengana, norberaren estimu txikiagoa dutenengana edo bakarrik sentitzen direnengana. Aita eta amei gurasotasun positiboko tresnak eskaintzen badizkiegu, konfiantza handiagoko haurrak izango ditugu, eta, horri esker, ez dira hain kalteberak izango sexu-abusuetan izaten den manipulazioaren aurrean.

Abusuak pairatzeko aukera erdira ere murrizten dela egiaztatu da, prebenitzeko programak hedatuz.

Prestakuntza, prestakuntza eta prestakuntza gehiago: Umeen lan egiten duten profesionalak ez badakite abusuen biktima izan daitekeen adingabe bat nola identifikatu, abusuak are gehiago luzatuko dira denboran, eta, umeak zer gertatu zaion azaltzen duenean, aukera gehiago egongo dira sinets ez diezaioten edo, gertatutakoa zeharka adierazten badu, ulertua izan ez dadin. Irakasle eskolako, irakasle masterreko edo zuzendaritza eginkizunak betetzeko ikastaroko curriculum akademikoak aztertu ondoren, ez dugu sexu-abusuen, haurren aurkako indarkeriaren edota umeen babesaren aipamenik aurkitu.

Ikastetxeetako barne protokoloak: Haurrak ikastetxean abusuen biktima izan dela jakinarazi duen kasuetan, ikastetxeen % 15ek baino ez diete horren berri eman agintari eskudunei. Funtsezkoa da maisu eta irakasleek nola jokatu jakin dezaten; hartarako, prozedurak eduki behar dituzte, ikastetxe eta hezkuntza-komunitateari konfiantza emateko ez ezik, izan litezkeen kasuak prebenitzeko, antzemateko eta nola kudeatu jakiteko ere.

Sektorearteko koordinaziorako protokoloak: Erakundeen artean koordinazio ezik egon ez dadin (gizarte-zerbitzuak, polizia, auzitegiak, hezkuntza- eta osasun-sistema), esparru-protokoloak eduki behar dira, eta autonomia-dekretu kategoria eman behar zaie, nahitaez betetzen direla bermatzeko.

Haurren aurkako indarkeria deuseztatzeko lege organikoa: Horrelako lege bat umeak indarkeria orotik babestearen aldeko konpromiso publikoaren adierazpen gorena izango litzateke; hari esker, administrazioak eta langile publikoek behar adina tresna izango litzukete haurren aurkako indarkeria onartzen ez duen gizarte baterantz aurrerapausoak emateko, eta, haurren aurkako indarkeriaren prebentzioan eta adingabeen babesean, Estatuko botereen eta eragileen prozesuak eta erantzukizunak ezarriko litzuke.

Legearekin batera dokumentu eragile bat ere behar da legea eraginkortasunez eta osoki aplikatu ahal izateko. Honako hauek eduki behar ditu, orobat: neurtzeko moduko helburuak, ekintza zehatzak, administrazioek egindako ahaleginak maila guztietan ebaluatu ahal izateko adierazleak, aurrekontu erabilgarria eta denbora-esparruak.

Aztertutako epaien % 13,8tan baino ez zuten froga aldezturik eratu.

Umeen tratamendurako eta familiei arreta emateko baliabideak: Haurtzaroan sexu-abusuak pairatzea haurren garapen psikologikoa markatzen duen esperientzia da. Baliabide publikoak guztion eskura edukitzea izango litzateke onena. Baliabideen garapen-maila, ordea, asko aldatzen da erkidego batetik beste batera.

Haurren Etxea: Gure inguruko hainbat herrialdetan, sexu-abusuak edo bestelako indarkeriak pairatu dituzten neska eta mutilen arreta emateko baliabideak Haurren Etxeak deituta antolatuta daude. Poliziaren, gizarte-zerbitzuen, epaitegien eta osasun-sistemaren arteko koordinazio-espazio bakarra da, eta horri esker umeak ez du erakunde batetik bestera ibili behar. Kontakizuna behin baino ez du ematen eta arreta berezia jasotzen du, koordinazio ezik edo haurra berriz biktima bihurtzeko aukerarik izan ez dadin. Horrelako etxeak dituzten herrialdeetan kondena kopurua handiagoa izaten da, ume gehiagok jasotzen dute tratamendua eta poliziaren zein gizarte-zerbitzuen ikerketak koordinatuta egoten dira.

UMEEN AURKAKO SEXU-ABUSUAK EUSKADIN

Haurrek jasandako era guztietako indarkerien modura, umeen aurkako sexu-abusuak errealitate ezkutua eta ezkutatua dira, haurren muga pertsonalak, barren-barrenekoak, haustea dakarrena. Pertsona batek (heldu bat edo beste adingabe bat) mutil edo neska bati portaera sexualak inposatzea dakar, bien arteko botere-desberdintasuna dagoenean, eta, oro har, engainua, indarra, gezurra edo manipulazioa erabiliz. Gizabanakoaren sexualtasunari eragiten dio, halaber.

«Haurren kontrako sexu-abusu kasuetan umearen biktimizazioa psikologikoki kaltegarria da, sozialki gaitzesgarria eta legez jazargarria. Era horretako tratu txarren sexu-osagaia dela-eta, ordea, askoz zailagoa da horrelako delituak antzematea, agerraraztea, bai eta jazartzea ere. Gaiaren gaineko beldurrek zailtzen dute abusua antzematea, pertsonen harreman esparru pribatua inbaditzen baitu»³.

Haurren kontrako sexu-abusu kasuak gero eta gehiago azaleratzen dira Euskadin, baina delitu hori tabua da oraindik. Haurren aurkako indarkeria ezkutuko arazoa da eta salaketa kopurua izozmendiaren tontorra besterik ez da. Umeek gertatzen ari zaien saltzeko mekanismoak falta dira, eta, horregatik, kasu asko ez dira ezagutzen eta zigorrik gabe gelditzen dira. Zenbait datuk hori berresten dute:

- Haurtzaroan jasandako sexu-abusuen % 2 eta % 10 inguru bakarrik azaleratzen dira⁴.
- 2015ean, 16 urte baino gutxiagoko adingabeen aurkako sexu-abusu, sexu-eraso eta telekomunikazio bidezko sexu-jazarpeneko 14 auzi izan ziren⁵.
- Haurren aurkako sexu-abusu kasuen % 90 ez dira ahozko epaiketara iristen.
- 2015ean, sexu-askatasunaren eta sexu-ukigabetasunaren aurkako delituekin lotutako 489 eginbide izan ziren⁶.

3 Save the Children: Abuso sexual infantil. Manual de formación para profesionales, 2001.

4 Eraikiz Kolektiboa: Abusos Sexuales en la Infancia. Visibilizando violencias, 2016.

5 EAEko Fiskaltzaren Memoria (2016).

6 EAEko Fiskaltzaren Memoria (2016).

Haurren aurkako sexu-abusuen esparruko erronkak Euskadin

1. **Datuak falta dira. Administrazio publikoek antzemandako kasuak jasotzen dituzten estatistika ofizialak gero eta gehiago dira urtez urte Euskadin, baina, hala eta guztiz ere, arazoaren prebalentziaren egiazko datuetatik urruti daude oraindik.** Antzemandako kasuak gehiago badira ere, ez dago ebidentziarik zehazteko biktima kopurua ere handiagoa den edo, kontzientziazio handiagogatik, kopuruak behera egin duen. **Izan ere, antzemandako kasuen kopurua handitu izana ez da ospatzeko zerbait,** arrail oso handia baitago gertatzen direla ondoriozta ditzakegun kasuen eta antzematen diren kasuen artean.

Save the Children erakundearen iritziz erregistroek ematen duten informazioa osatu egin behar da arazoaren ikuspegi zabal eta errealagoa izateko, eta ez argazki partzial bat soilik. Gaur egungo estatistika-erregistroen berezko mugak gainditu beharko lirateke, salatu edo jakinarazitako kasuak baino ez dituztelako biltzen horiek⁷. Erregistro horiek ez digute laguntzen haur biktimen benetako kopurua eta ezaugarriak ikusten (adina edo sexua, erasotzailearekin zer erlazio duten...), eta erakundeek eta profesionalek horrelako kasuak antzemateko duten gaitasun eskasaz ohartzeko ere ez dira baliagarriak. Horrenbestez, Euskadin atzera begirako azterketak egiteko premia argia dago, parte hartzen dutenei haurtzaroan izandako esperientziei buruz galdetuz.

2. **Prebentzio-programak indartzea.** Sexu-abusuaren has-tapenean botere-abusua dagoela kontuan izanik, babesaren arloan erantzukizuna duten administrazio publikoek umeen ahalduntzean jarri behar dute arreta, era horretan, lehenik, sexu-abusu saiakera bat pairatzeko hain kaltebera izan ez daitezen, eta, bigarrenik, halakorik gertatzekotan, eraginkortasunez erantzuten jakin dezaten eta horrela egin dezaten. Prebentzio-programek erdira murrizten dute haur batek abusua pairatzeko aukera. Euskadin, funtsezkoa da prebentzio elementuak txertatzea hezkuntza sistemako curriculum-eskemen barruan.

⁷ Osasun, Gizarte Zerbitzu eta Berdintasun Ministeriok tresna bakarra du: Haurren Aurkako Ustezko Tratu Txarren Erregistro Bateratua (RUMI). Familia barruko indarkeria baino ez du biltzen, eta, gainera, borondatezkoa da autonomia-erkidegoek jakinarazpen orriak bildu eta administrazio zentralari bidaltzea. Barne Arazoetarako Ministerioak biktima adingabeak tartean dauden delitu-salaketen kopurua eta eboluzioa biltzen ditu, baina ez dago zehazki jakiterik haurren aurkako sexu-abusuengatik zenbat salaketa izan diren, adingabeen sexu-askatasunaren kontrako kategoria zabalago baten barruan baitaude; kategoria horrek pornografia, sexu-abusuak eta sexu-esplotazioa hartzen ditu barnean, ez, ordea, sexu-erasoak.

Uneotan, prebentzioaren eta hezkuntzaren arloko pausoak eman behar dira, Eusko Legebiltzarra eskatzen ari den moduan, nahiz eta Euskadin honako protokolo hau jada bada: **Protokoloa, hezkuntza-esparruan haur eta nerabeek jasan ditzaketen babesgabetasun-egoerak eta tratu txarrak, abusua eta sexu-jazarpena prebenitzeko eta egoera horietan jardutekoa, eta hezkuntza-esparruan eta adingabeen babesean esku hartzen duten eragileen arteko lankidetzak eta koordinaziorakoa** (Eusko Jaurlaritza)⁸.

3. **Sexu-abusuen biktima diren neska eta mutilentzako laguntza unibertsalik ez egotea.** Euskadin, tratamendu-programa espezifikoak ez dira unibertsalak, familia barruko indarkeria pairatzen duten eta, ondorioz, gizarte-zerbitzuen jarraipena duten neska eta mutilei bakarrik aplikatzen zaizkie. Balora tresna da haurrak babesteko EAEko sistemaren ezaugarri nagusietako bat. Oinarritzko gizarte-zerbitzuek esku hartzen duten kasuetan tresna hori aplikatzearen ondorioz, sexu-abusua izateko «susmagarri» diren kasuak berehala bideratzen dira foru-aldundi bakoitzeko gizarte-zerbitzu espezializatuera. Alde positiboa da zerbitzuotara bideratuta haurrok arreta eta tratamendua bizkor jasotzeko aukera dutela (gehienez bi eta hiru hilabete bitartean), baina alde negatibo bat ere badago: kanpoan gelditzen dira behar berdina duten sexu-abusuen biktima asko, alegia, gizarte-zerbitzuen radarretik kanpo dauden eta sexu-abusuen biktima izan daitezkeen haurrak. EAEko administrazio publikoek ume guztien egoera baloratu behar dute, eta guztiei eskaini behar diete behar duten arreta.
4. **Kasuak antzematea, eragileak prestatzea eta protokoloak aplikatzea.** Hurrekin lan egiten duten profesionalak prestakuntza emateko ageriko beharra dago Euskadin. Umeak sexu-esplotazioaren eta sexu-abusuaren aurka babesteko Europako Kontseiluaren Hitzarmenak⁹ gomendatzen duenez, prebentzio-neurri gisa hurrekin harreman zuzenean dauden profesional guztiek sexu-esplotazioari eta sexu-abusuari buruzko ezagutza egokiak izan behar dituzte, baita horrelakoak antzemateko bitartekoak eta dagokion zerbitzuei gertatzen ari denaren berri emateko bide egokiak ere.

Ez Haur Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntzako irakasle izateko karreraren curriculum akademikoetan, ez institutuko irakasle izateko masterren programetan ere, ez dago haurren babasaren edo haurren kontrako indarkeriaren gaineko erreferentziarik Euskadin. Horrenbestez, ez dago horietan sexu-abusuak

⁸ 11/11/02/01/0088 zuzenketa transakzionala, adingabeen aurkako sexu-abusuei buruzkoa.

⁹ Lanzaroteko Hitzarmena, Espainiak 2007an berretsia, 2010eko azaroaren 12ko BOE, 274. zk.

antzemateari buruzko prestakuntzarik sartzeko aukerarik. Haurrekin harreman zuzena duten beste esparru batzuetako gainerako profesionalei dagokienez, gauza bera gertatzen da. Alde batetik, haurrekin lan egiten duten profesionalei prestakuntza eta gaikuntza eman behar zaizkie, eta, bestetik, protokolo eraginkorrak aplikatu behar dira, bai eskolen barruan bai eskoletatik kanpo ere, familiekin ez ezik, hezkuntzako, osasuneko, gizarteko, poliziako eta arlo judizialeko sektoreekin ere koordinazioa lortzeko.

5. **Biktinek Justiziara jotzea.** Justizian sexu-abusuekin lotutako kasu gutxien irekita dituen autonomia-erkidegoa da Euskadi: 3,3 kasu 100.000 adingabeko (Estatuko batezbestekoa 12,1 kasukoa da). Epaitegietara iristen diren kasuen % 90¹⁰ ahozko epaiketara (eta, hortaz, epaia jasotzera) iritsi gabe artxibatzen dituztela kontuan hartzen badugu, gainera, biktimen Justiziarako sarbidea oso mugatua da. Horixe da haurren aurkako sexu-abusuei dagokionez Euskadin bizi dugun errealitatearen gakoetako bat: Zergatik iristen dira horren kasu gutxi auzitegietara?

Aztertu ditugun jurisprudentziako datu-baseetan eskuragarri dauden EAEko epaitegietako epai urriak begiratuta, adingabearen lekukotza oso gutxitan eratu dute aldez aurretik. EAEko epaitegietako esku-hartze psikosozialeko taldeetako profesionalek froga aldez aurretik eratu badezakete ere, instrukzio-epaile batek eskatu behar du, baita geroago ahozko fasean onartu ere, eta hori ez da gehienetan gertatzen. Justizia sistema haurrentzat ahalik eta atseginena izatea are zailago bihurtzen duen beste errealitate bat ere badago gainera: froga aldez aurretik eratuagatik ere, haurrak gertatutakoa lau edo bost aldiz kontatu behar izaten du sistema judizialera iritsi aurretik (familia, ikastetxea, polizia, ospitalea...).

10 Fiskaltzaren memoria oinarri hartuta guk egindako zenbatespena.

Euskadirako gomendioak

Azken urteotan, haurren aurkako sexu-abusuen errealitatea pixkanaka ikusarazi da Euskadin. Save the Children bezalako erakundeek egindako salaketa lanaz gain, hainbat kasu zabaldu dira iritzi publikoan, baita gizartearen gaitzespena ekarri ere. Horrez gain, abusuei buruzko txosten espezifikoak plazaratu dira, eta erakunde publikoek arazoari heltzeko duten interesa ere ezin da albo batera utzi. Hori horrela, aukera ezin hobea dugu adierazitako erronkei aurre egiteko irtenbideak eta gomendioak proposatzeko.

Estatuari begira, Save the Children lanean ari da Haurren Aurkako Indarkeria Deuseztatzeko Lege Organikoa aldarrika dezaten; Estatuko botere guztien zein beste eragile batzuen prozesuak eta erantzukizunak ezartzen lagunduko du horrek, bai haurren aurkako indarkeria prebenitzeko bai adingabeak babesteko. Horrela, posible izango da haurren aurkako indarkeriarik onartzen ez duen gizarte baterantz aurrerapausoak ematea.

Horren osagarri, Euskadin, Save the Children erakundeak **indarkeriaren biktima diren haurrentzako prebentzio eta arreta plan oso bat** garatzearen alde egiten du. Euskadin dauden erakunde publiko eta gizarte erakunde nagusiek adostu eta sustatu behar dute plan hori, eta berariazko aurrekontua eta baliabideak eduki beharko ditu.

Zehazki, umeei eta nerabeek jasandako sexu-abusuei erantzun hobea emateko bidean aurrera egiteko, honako neurri hauek bultzatzea eskatzen dugu:

1. **EAEko administrazio publikoek haurren aurkako sexu-abusuei Euskadin zer intzidentzia duten ezagutu ahal izateko inkestak egitea biztanleei,** horiek aintzat hartuta abusuak pairatzen dituzten haurrentzako prebentzio, babes eta arretako politika osoak sustatzeko.
2. **Haurtzaroaren eta Nerabezaroaren Euskal Behatokia sendotzea.** Behatokiari eman nahi zaio haurren aurkako indarkeriarekin, oro har, eta abusuekin, zehazki, lotutako prozesuen ardura; hori dela eta, giza baliabide eta bitarteko material egokiak bideratu behar zaizkio jarritako helburu eta erronkei erantzun ahal izateko.
3. **Sexu-hezkuntza eta afektibitate-hezkuntza adin goiztiarretik.** Araututako hezkuntzan sartzen diren haur guztiek gazte-gaztetatik afektibitatearekin eta sexuarekin lotutako prestakuntza egokia jasotzen dutela bermatzea.
4. **Euskadin kontzientziazio-kanpainak** egitea sexu-abusuaren inguruko mitoak desagerrarazten laguntzeko eta abusuok antzematea eta salatzea sustatzeko.

5. **Aiten eta amen artean gurasotasun positiboa sustatzea** harreman osasuntsu eta afektiboak sortu eta haurrek konfiantzazko giroan hazteko aukera izan dezaten.
6. Ikastetxeetako maisuen, irakasleen eta zuzendarien zein kirol entrenatzaileen eta aisialdiko begiraleen **prestakuntza-curriculumetan haurren indarkeria eta babesari buruzko prestakuntza** sartzea.
7. **Hezkuntza-esparruan haur eta nerabeek jasan ditzaizuten babesgabetasun-egoerak eta tratu txarrak, abusua eta sexu-jazarpena prebenitzeko eta egoera horietan jarduteko protokoloa** eraginkortasunez aplikatzea, eta protokoloa aldatzea umeak halakoen berri ematen duen guztietan jakinarazi behar izateko, eta ez soilik susmo oinarrituta dagoenean. Haur batek ikastetxean abusuen biktima izan dela jakinarazi duen kasuetan, ikastetxeen % 15ek¹¹ baino ez diete horren berri eman agintari eskudunei.
8. **Sektorearteko koordinazio-protokoloa egitea**, eta autonomia-dekretu bihurtzea, nahitaez betetzen dela bermatzeko.
9. Esparru judizialan:
 - a. Lehentasuna ematea adingabeen sexu-abusuen prozedurak izapidetu eta egiteari, denboran luzatzeak adingabeen eskubideak berreskuratu edo berrezartzeari kalte egitea saihesteko eta adingabearen lekukotza kaltetua izan ez dadin.
 - b. Justiziako profesionalei umeen aurkako sexu-abusuen ez-augarrien gaineko prestakuntza ematea.
 - c. Epai guztiak behar bezala arrazoitzea, adingabearen interes gorena –banaka aintzat hartua– oinarria izanik.
 - d. Agenteei sexu-abusua pairatu duen adingabea ez galdekatzeko eskatzen dien Ertzaintzaren barneko jarraibide/zirkularra ofizialtzea.
 - e. **Epaitegi guztiek aldeztu aurretik erabakitako frogak onartu dezaten** sustatzea, eta Euskadin haurrak berriz biktima bihurtzea saihesteko dagoen lan-protokoloa mantentzea Auzitegiko Medikuntzaren Lege Erakundearen (biktimaren lekukotzaren sinesgarritasuna baliozkotzen du) eta EAEko epaitegietako talde psikosozialaren artean (aldeztu aurretik erabakitako frogak egiten du). Protokoloak exijitzen du epaileak bi gauzak bi momentu ezberdinetan eskatzen baditu, talde bakar batek aldi berean egin behar dituela

11 Estatu osoko datua.

eta talde hori izatea aldez aurretik eratutako froga egiten duena.

- f. Baldin eta salbuespenez adingabeak deklaratu behar badu epaiketaren ikustaldian aldez aurretik eratutako froga ez delako onartu, deklarazioa egiteko orduan, honako hauek hartuko dira kontuan:
 - i. Adingabearen deklarazioak denbora-lehentasuna izango du ahozko epaiketari.
 - ii. Talde psikosozialek txostena egingo dute adingabeak deklaratzeko orduan zer egoera emozional duen eta fase horretan deklaratzeko zer-nolako gaitasuna duen zehazteko.
 - iii. Umea eta inkulpatua aurrez aurre elkar ikustea saihestuko da.
 - iv. Entzunaldiak atea itxita egingo dira.
 - g. **Auzitegiko psikologoek txostenak estandarizatzea** informazio hau jasota: teknikariaren esperientzia, zer metodologia erabili duen eta adingabearen lekukotza baloratzeko SVA sistemaren irizpideetako bakoitzaren azterketaren emaitzak.
- 10. Biktimen Arretarako Bulegoek sexu-abusuak pairatu dituzten haurren arretarako bitarteko nahikoak, prestakuntza eta protokoloak eduki behar dituzte.
 - 11. Autonomietako baliabideak indartu eta zabaldu egin behar dira, eta tratamendu eta arreta espezializatuko baliabide publiko eta doako bihurtu; hori horrela, epaitegiek eta babes-sistemak koordinatuta lan egin behar dute, Euskadin «Haurren Etxeen» eredurantz aurrerapausoak eman ditzagun.
 - 12. **On line erregistro autonomiko** bat sortzea, eta, bertan, adingabe batek indarkeria pairatu duela susmatzean edo horrelako kasu bat ezagutzean indarrean jarri behar diren esku-hartze guztiak zehaztuta egon daitezen (gizarte-zerbitzuak, osasun-arlokoak, polizia, judizialak...).



SAVETHECHILDREN.ES



Save the Children